



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 1. maila

IRAKASGAIA

25048 - Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honen bidez, arretaren, pertzepzioaren eta motibazioaren psikologiaren oinarriko eta aplikatutako ikerketa-ildoak ezagutarazi nahi dira, eta prozesu horiei aplikatutako teoria garrantzitsuenak eta ikerketa-metodoak ere. Ikaslea gai izan daiteke prozesu horien funtzioen sarrera-ikuspegia eskuratzeko, baita diziplina anitzeko ikuspegia ere.

Irakasgai hau irakaskuntza-berrikuntzako proiektu baten parte da, eta honako izenburuarekin: Promoción de la disposición científica, creativa y autónoma en los estudiantes de Psicología a través del eclecticismo en metodologías docentes (IKD i³ 23-44). Proiektua LORETU prototipoaren eredian dago kokatuta, Berrikuntzako, Gizarte Konpromisoko eta Kultur Ekintzako Errektoreordetzak bultzatua.

Proiektu honen helburu nagusia gure irakaslana hobetzea da, hainbat metodologia kontuan hartuz eta kontrastatuz.

Metodologia horien helburua da aztertzea ea eklektizismo metodologikoa baliagarria den pentsamendu kritikoa sustatzeko, abstrakzio-gaitasuna hobetzeko eta ikasleen indukziozko analisirako gaitasuna hobetzeko.

Ikasleek irakasgaiaren irakaskuntza-gida osoago bat eskura dezakete ("ikaslearen gida" izenekoa) E-gela plataformaren bidez.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgaiaren gaitasunak/ikaskuntzaren emaitzak

CE1 Arretaren, pertzepzioaren eta motibazioaren fenomenoak eta horiekin lotutako eredu teorikoak ezagutzea.

CE2 Prozesu psikologikoak neurtzeko gehien erabiltzen diren tresna nagusiak ezagutzea.

CE3 Eguneroko bizitzako egoera eta fenomenoak ezagutzak aplikatzea, kasuak eta arazoak aztertuz eta txosten idatziak eginez.

CE4 Hausnarketa kritikoa egiteko eta landutako edukiak autonomiaz kudeatzeko eta horri buruzko norberaren ideiak argudiatzeko gai izatea.

Irakasgaia lehen aipatutako IKD-i³ proiektuaren esparruan garatzean, garrantzi berezia emango zaio zeharkako kompetentzia hauen sustapenari (EHUren katalogotik ateratakoak, 2019):

- Autonomia eta autoerregulazioa (ikasleek ikasteko eta erabakiak hartzeko orduan prozesu kognitibo metakognitiboak buruz kontzientzia har dezaten eta prozesu horiek optimiza ditzaten sustatuz)

- Konpromiso soziala (ikasleen ekintza enpatiko eta arduratsuak sustatuz, hainbat motatako erronken aurrean).

- Informazioaren kudeaketa eta herritartasun digitala (ikasleek informazio zientifikoa modu kritiko, fidagarri eta arduratsuan erabil dezaten saiatuz).

- Berrikuntza eta ekintzailtza (ikasleek beren berritzeko eta sortzeko gaitasuna optimiza dezaten sustatuz).

- Pentsamendu Kritikoa (aztertzeko eta zalantzan jartzeko gaitasuna bultzatuz eta iritzi arrazoituen balioaz jabetuz)

Zeharkako gaitasun horiek bilatzeak Garapen Iraunkorreko Helburu hauek lortzera bideratzen du irakasgaia (GIH, Agenda 2030, NBE).

A4, Kalitatezko hezkuntza.

A5, Genero-berdintasuna.

A8, Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

O10, Desberdintasunak murriztea.

Zeharkako gaitasun horiek dituen pertsona batek (pentsamendu kritikorako, zalantzan jartzeko, sormen-berrikuntzarako eta abarretarako joera duenak) aukera handiagoz sustatuko ditu garapen jasagarria, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzea, eta abar. Gainera, gaitasun horiek ekintzailtza eta erronka ekonomiko eta sozialei eraginkortasunez aurre egitea sustatuko dute.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

I. GAI-MULTZOA: PSIKOLOGIA KOGNITIBOA

1. GAIA: PROZESAMENDU KOGNITIBOA AZTERTZEKO SARRERA

1. Psikologia kognitiboa eta zientzia kognitiboa.

2. Psikologia kognitiboa eta metodo zientifikoa.

3. Psikologia kognitiboa: prozesuak.

4. Pertzepzioaren, arretaren eta motibazioaren hastapenak.

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea



II. GAI-MULTZOA: PERTZEPZIOA

1. GAIA: PERTZEPZIOAREN HASTAPENAK

1.2. Pertzepzio-prozesua: sentsaziotik pertzepziora.

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

2. GAIA: PERTZEPZIOAREN AZTERKETARAKO HURBILKETAK

2.1. Fisiologikoa

2.2 psikofisikoa

3.2.1. Psikofisika klasikoa:

3.2.2 zer den psikofisika.

3.2.3 atalase absolutua.

3.2.4 metodo psikofisiko klasikoak.

3.2.5 atalase diferentziala eta horren neurketa.

3.2.6 seinaleak hautemateko teoria

3.2.6.1. Kasu teorikoak

3.2.6.2 sentikortasuna (d ') eta erantzuteko irizpidea (b).

2.3 kognitiboa

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

3. GAIA. PERTZEPZIO-ANTOLAMENDUA

3.1 formaren pertzepzioa

3.2 tamainaren pertzepzioa

3.3 eszenaren pertzepzioa

3.4 sakontasunaren pertzepzioa

3.5 mugimenduaren pertzepzioa

3.6 kolorearen pertzepzioa

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

III. GAI-MULTZOA: ARRETA

1. GAIA: ARRETAREN HASTAPENAK

1.1 Zer da arreta?

1.2 arretaren dimentsioak

1.3 arreta eta kontzientzia

1.3 arreta-sistemak

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

2. GAIA: ARRETA SELEKTIBOA, ZATITUA ETA IRAUNKORRA.

1. Arreta jarraitua

2. Hautazko arreta

3. Arreta zatitua

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

IV. BLOKEA: MOTIBAZIOA

1. GAIA: MOTIBAZIOA

1. Sarrera.

2. Motibazio-prozesua.

3. Motibazioaren alderdi kognitiboak: planak, xedeak, disonantzia kognitiboa, autokontzeptua, espektatibak eta kausazko atribuzioak.

4. Ekintzarako joera pertsonalak (lorpen, afiliazio eta boterearen arrazoiak).

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

2. GAIA: MOTIBAZIO ESTRINTSEKOA ETA INTRINTSEKOA



1. Motibazio estrintsekoaren eta intrintsekoaren kontzeptuak.
2. Sariak, zigorrak eta pizgarriak arrazoitzeko eginkizuna.
3. Berez motibatzailea den jarduera bat eragiten duten faktoreak.
- 4.1. Kanpoko sariak motibazio intrintsekoan duten eragina: sariaren ezkutuko prezioa.
- 4.2. Kanpoko motibazio-orientazioaren beste ondorio negatibo batzuk.

C1, C2, C3 eta C4 gaitasunak garatzea

METODOLOGIA

Modalitate teorikoan, ikasleek irakaslearen eskutik jasoko dituzte eskola magistralak, eta ezinbestekoa izango da ikasleek aldeztu aurretik irakasleak gomendatutako materiala (liburu-kapitulua, artikulua, testua, etab.) landu izana.

Modalitate praktikoetan (Gelako Praktikak, Tailerrak, Ordenagailuko Praktikak eta Mintegiak) hainbat jarduera praktiko egingo dira (esperimentuak, bideoak, probak). 10 aldiz, jarduera praktikoek PA ordu bat eta TAko ordu bat izango dituzte. Oro har, jarduera praktiko horiek honako programazio honen arabera garatuko dira:

1. Abiapuntuko arazo bat planteatzea, jarduera deskribatzea, helburuak, esparru teorikoaren azalpena, beharrezkoa bada, esperimentuak aurkeztea edo subjektu esperimendal gisa parte hartzea, bideoak ikustea (GP)
2. Emaitzak aztertzea eta ebaluatzea, probak egitea, eztabaidatzea

Adibidez, prozedura esperimendalaren, ikasleek modu kooperatiboan egingo dituzte jarduera desberdinak prozedura esperimendal beraren inguruan. Praktika bakoitza Gelako Praktiken (PA) saio batean hasiko da. Saio horretan, irakasleak zenbait fenomenori buruzko sarrera labur bat egingo du. Haien esperimendatzeko, esperimendu bat egingo da, eta ikasleak izango dira subjektu esperimendalak.

Tailerreko (TAko) ondorengo saio batean, baldintza edo talde esperimendalaren datuak bildu, grafikoak egin eta emaitzak aztertuko dituzte, planteatutako arazoari buruzko ondorioak ateratzeko.

C1, C2 eta C4 gaitasunak garatzea

Irakasgaia lehen aipatutako IKD-i3 proiektuaren esparruan garatzen denez, ikastaroaren zeharkako konpetentzien eskurapena ebaluatzeko jardueraren bat sar daiteke (adibidez, artikulua zientifiko bat laburtzea edo kritikoki aztertzea, esperimendu bat diseinatzea, edo garrantzitsutzat jotzen den beste jardueraren bat).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikaskelako eskola-orduak	32	2	13		3		10		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	19,5		4,5		15		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Arreta, pertzeptzioa eta motibazioko azken azterketak zati bat praktikoa eta beste bat teorikoa izango ditu. Azterketa teorikoak notaren %60a, eta azterketa praktikoak notaren %40a balioko ditu. Bi alderdiek gainditu behar dira ikasgaia gainditzeko.

IRAKASGAI HONETAN AZTERKETARA EZ AURKEZTEAREKIN NAHIKOA IZANGO DA KONBOKATORIARA ERRENUNTZIA EGITEKO.

Ikaskelaz kanpoko irakaskuntza planan, pertzeptzioa eta motibazioko azken azterketak zati bat praktikoa eta beste bat teorikoa izango ditu. Azterketa teorikoak notaren %60a, eta azterketa praktikoak notaren %40a balioko ditu.

- Azterketa teorikoa test erakoa izango da, edo oso galdera ireki laburrekin. Galderak teorikoak izan daitezke, testuinguruan kokatuta, eguneroko bizitzako egoerei aplikatuta, kasu edo egoera esperimendal gisa, eta aztergai diren prozesuekin lotuta egongo dira.



- Azterketa praktikoa ere test motakoa izango da, edo egindako praktiken edukiei buruzko galdera ireki oso laburrekin.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak klase-modalitate bakoitzean beharrezkoak diren materialak nola lortuko diren adieraziko du.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

BALLESTEROS, S. (2002). Psicología general II: Atención y percepción. Madrid: UNED.

COREN, S.; WARD, L.M. y ENNS, J.T. (2000). Sensación y percepción. México: McGraw-Hill.

GOLDSTEIN, E.B. (2006). Sensación y percepción. Madrid: Debate.

IRAOLA, J. Y SOROA, M. (2004). Giza Pertzepzioa eta Arreta: Praktiken bilduma. Bilbo: UPV-EHU. (<http://testubiltegia.ehu.es>).

MONSERRAT, J. (1998). La percepción visual. Madrid: Biblioteca Nueva.

MUNAR, E.; ROSELLÓ, J. y SÁNCHEZ-CABACO, A. (1999). Atención y percepción. Madrid: Alianza editorial.

SANCHEZ-CABACO, A. y ARANA, J.M. (1997). Manual de prácticas de percepción y atención. Salamanca: Amarú.

Gehiago sakontzeko bibliografia

BLANCO, M.J. (1996). Psicofísica. Madrid: Universitas.

GARCÍA SEVILLA, J. (1997). Psicología de la atención. Madrid: Síntesis.

IRAOLA, J. eta SOROA, M. (2004). Giza pertzepzioa eta arreta: praktiken bilduma. Bilbo: EHU. (<http://testubiltegia.ehu.es>).

KAHNEMAN, D. (1997). Atención y esfuerzo. Madrid: Biblioteca Nueva

MATLIN, M.W. eta FOLEY, H. (1996). Sensación y percepción. Mexico: Pentice Hall.

MONSERRAT, J. (1998). La percepción visual. Madrid: Biblioteca Nueva.

MUÑIZ, J. (1991). Introducción a los métodos psicofísicos. Barcelona: PPU.

ROSELLÓ, J. (1997). Psicología de la atención. Introducción al mecanismo atencional. Madrid: Pirámide.

Aldizkariak

Psicológica: <http://www.uv.es/revispsi/>

Psichotema: <http://www.psichotema.com/>

Interneteko helbide interesgarriak

www.sciencedirect.com

OHARRAK